


“Zelula amak” medikamentu bihurtzen

2009/06/16

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa ASC alogenikoen eta bioingeniaritzaren proiektuan parte hartzen ari da, aplikazio klinikoetarako dagokienez, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak sustatutako Proiektu Berezien eta Estrategikoen ikerketa programaren barruan dago eta erreferentzia zenbakia hau da: PS-010000-2009-2 // PSE-010000-2009-3. Proiektuaren helburu nagusia gantz ehuneko zelula ametan oinarritutako medikamentuak garatzea da, eta bertan Espainiako hainbat enpresa, unibertsitate eta ospitale parte hartzen ari dira.

Goi Eskola Politeknikoaren partaidetza euskarri zelularren garapenean zentratuta dago, material metalikoetan zein material polimerikoetan. Garapen hori proiektuaren gainerako partaideek egindako lanaren osagarri moduan planteatzen da, lortu nahi diren aplikazio gehienetarako oinarria konpondu nahi diren lekuetan ASC zelulen administrazio lokala egitea baita. Ildo horretan, uste da administrazio lokal horien ondorioz inokulatzen diren zelulen %95-99 inguru lehenengo egunetan hiltzen direla, seguruenik integratzeko “nitxo egokirik” ez dutelako edo inokulazioaren giroa “oso kontrakoa” delako.

Horrenbestez, Goi Eskola Politeknikoak giza gorputzarekin eta hazkuntzako zelulekin bateragarriak izango diren biomatrizeak garatu nahi ditu (ahal dela giza gorputzaren aldetik bioxurgagarriak), zelulak horien gainean hazi ahal izan daitezzen, nitxo egokiak dituzten inguruneak bilatzeko eta hilkortasun tasa handi hori murrizteko. Garapena Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritzako fakultatean egiten ari da, eta horretarako magnesio aleazioak erabiltzen dira, material metaliko gisa, eta azido poli-L-laktikoa (PLLA), material polimeriko gisa.



Zelula amak



Financiado por:
Ministerio de Ciencia
e Innovación

Cofinanciado por:
Fondo Europeo de
Desarrollo Regional
(FEDER)

